



'Karta astrala'
dokumentaletik
hartutako
fotograma.

Arima bikiaren bila

KARTA ASTRALA DOKUMENTALA

Zuzendari eta gidoiariak: Maite Bidarte eta Koldo García. Euskal Herria, 27 min.
Azaroaren 19an, Donostiako Trueba zinemetan aurkeztua



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Maitek krisi bat izan du. Zer hobeto, gertatu zaiona ulertzeko, krisi bera bizi izan duenarekin hitz egitea baino? Karta astralen arabera, Maiteren leku berean une bertsuan jaio zenak antzeko zikloak bizi izan ditu eta nortasun berdintsua du gainera. Haren bila abiatuko da Maite, erantzunen premian.

Gustuko ditugu bilaketan oinarritutako dokumentalak: Oskar Alegriaren *Emak Bakia Baita* filmak, Miarrizteko etxe misterioitsu bat aurkitzea helburu, liluratu egin gintuen; Josu Martinezen *Gure Sor Lekuaren Bila* lanean, pelikula bat berreskuratzeko peskizek harripatu gintuzten; eta *Karta astrala* opera primak ez digu hutsik egin. Generoaren klabeak bere egiten ditu filmak: ikuslea konplize egiten duen bilaketa prozesua; bideko oztupo, ezuste eta bihurtuak;

bilatzen duena aurkituko ote duen jakin-minez istorioak mantentzen duen tentsioa... Eta freskoa eta naturala da emaitza, baita protagonista bera ere ("aktore lanetan seriooki hasteko erran didate!", diosku Maite Bidartek). Bidean lagundu dioten pertsonak ere kamerarik egongo ez bailitzan jardun dira kontu-kontari (aipatzekoa, karta astraletan aditu den emakumearenera bisita egiten dueneko). Nabari da konfiantza giroan errodatu dutela, bilatze lanetan izandako frustrazioak frustrazio disfrutatu egin dutela, eta hori guztia transmititzen diote ikusleari.

Bilaketa prozesu hauetan, bidea bera da interesgarriena, baina bihurtu gabe, helburua oso argi du uneoro dokumentalak, eta konturatzerako iritsiko

gara helmugara, ordu erdiko metrajera heldu gabe.

Larrotxenetik Lekeitiara

Beste ezaugarri batzuen artean, "filmaren originaltasuna" baloratu zuten Lekeitioko Euskal Zine Bileran, eta pelikula onenaren eta gidoi onenaren saria lortu zituen, amateur mailan. Azaroaren 19an Donostiako Trueban aurkeztu zuten eta jasotako harrera beroa eskertu dute zuzendariak. Hemenetik aurrera ere egingo du bidea dokumentalak. Donostiako Larrotxenen, ikus-entzunezko ikastaro batean jaio zen Koldo García eta Maite Bidarteren *Karta astrala*. Lehenengo lan honekin "hagitz-hagitz pozik" daudela esan digu Bidartek, "batez ere jendeak gustura ikusten duelako". ■